

Adrian Zelaia Ibarra

«Gehiengoaren governua baino gehiago da demokrazia»

Euskararen aldeko eragileen zerrendan da Adrian Zelaia Ibarra, Andres Urrutia euskaltzainburuak iaz Bidegileak bilduman ezarri zuenetik. Alabaina, legelari eta irakasle izana da Zelaia, aipu eta sona handikoa gure zuzenbidea xehe aztertu zuenez gero.

MIEL A. ELUSTONDO

Argazkiak: Dani Blanco

Baietz, elkarrizketara etortzeko esan zigun Andres Urrutiak. Zuri telefonoa jo eta, zuk, purrustada txiki bat ere egin zenuen.

Ez ditut gogo onez egiten. Ez zait publizitatea gustatzen. Gainera, egin izan dizkidaten elkarrizketetan nekez transkribatu dituzte, zuzen, nik esandakoak, edo esan izan ditudanak. Horregatik, nahiago dut elkarrizketarik ez izan.

Hona etortzeko garai egokiena noiz ote zenuen galdetu eta hasi zinen: "Eguna lasai hasi ohi dut eta hau eta hura egiten dut, gosalduta eta beste. Gero, egunkariari begira jartzen naiz... eta hasten naiz intoxikatzen".

Bai, intoxikazioa da egunkaria. Gaur egun, duela 80 urte baino intoxikagarriagoa. Ume nintzenez, egunkaria jasotzen genuen etxean: *Noticiero bilbaino*. "Egunkari inpartziala", zioen, bere buruaz. Eta, hartan, agentziak emanda legez zetozen albisteak, ezohiko gehigarririk gabe. Errealitatearen gaineko ideia egiteko modua zuen irakurleak. Gaur egun, erosten duzun egunkariaren arabera, albisteak izan liteke berdin zuri, edo beltz; zuri, edo gorri.

1917an jaioa. Nora begira jarriko gara elkarrizketa honetan, denboran aurrera, ala atzera?

Ez nauzu bete-betean harrapatu, nekatuta baino. Oso ondo ere ez... Baina, hala ere, aurrera begiratu nahi izan dut beti.

Doña Matilde Antona. Gogoan daukazu?




Bai, horixe. Zeberrioko eskolan ikasi nuen ira-

kurtzen. Sestaora joan ginenean bizitzen, amak Nerbioiko ontziolako eskolara eraman ninduen. Hiru maistra ziren han, eta ni Doña Matilderekin gertatu nintzen. Berak erakutsi zizkidan nik dakizkidan gauzarik inportanteenak. Haren eskolara heldu nintzenez, irakurtzeko agindu zidan. Banintzela ikusi, eta bizitzan eduki dudana lehenengo liburua eman

Nortasun agiria

Adrian Zelaia Ibarra (Barakaldo, 1917). Zeberrikoa zuen aita, Begoñakoa ama. Pedagogia ikasten abiatu zen Madrilera, baina fakultatea itxi zuen gerra ostean Francoren erregimenak eta horrela egin zuen Zuzenbidea (1942). Bilboko lehenengo hiri-epaitegiko epaile izan zen 1981 arte, eta Durangokoa gero. 1985etik 1990era, berriz, Espainiako Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiko kide izan zen. Zuzenbidearen ikertzaile zaildua da, hainbat lan ditu argitaratuak; tartean, tesia, *Vizcaya y su fuero civil* (1965), eta *Compilación de Vizcaya y Álava* (1978). Irakasle ere jardun zuen Deustuko Unibertsitatean, eta euskal zuzenbidea ikertzen eta zabaltzen nabarmendu da. Euskalerraren Adiskideen Elkarte, Eusko Ikaskuntza eta Zuzenbidearen Euskal Akademiako kide da. 1967an, Euskerazaleak elkartearen sorreran hartu zuen parte, eta zenbait artikulua ditu idatziak haren *Zer* aldizkarian.





Sukaldaritza

“Gogoan daukat langileen senideak egunero fabrikara joaten zirela, eguerdiko hamabietan, kaxa bat zeramatela, jatekoarekin.

Barruan, lapiko txiki bat: indabak, eta, onenean, urdaia eta aza apur bat. Horixe zen eguna joan eta eguna etorri haien jatekoa. Gaur egun, aspergarri zait sukaldari festa hori. Piztu telebista eta, horixe gauza tristea: gizonezko bat, zartagina eskuan, halako formula miresgarri bat kontatzen, hau eta hura kuzinatzeke. Baina, izan, milaka dira formulak. Gure aitaita-amamen garaietan, sukaldari andreek ez zuten hogei plater baino gehiago ezagutzen, baina zoragarri kuzinatzen zuten. Nik, oraintxe, nahiago dut sukaldaritza tradizionala, eta legatza saltsa berdean jan, bestelako berrikuntzarik baino”.

zidan: *Enciclopedia de Grado Preparatorio*, Almagrorena. Huraxe nire lehenengo liburua. Hunkitu ninduen. Adoratu egiten nuen. Uste nuen bertan zegoela gordeta zientzia guztia. Gero konturatu nintzen ez zela horrela. Baina Doña Matildek institutura heldu bitartean erakutsi zidanak, institutuan bertan luze nabigatzeko balio izan zidan. Bestalde, modu zibilizatuan bizitzen ere erakutsi zidan, hori ere gauza inportantea da-eta.

Gaur egun, modu zibilizatuan bizitzen erakusten da eskolan?

Ez nizuke esango, ez nago-eta mundu horretan sartuta. Dena dela, irudipena daukat ezetz.

Eskolatzea da inportanteena, ala hezibidea?

Gaitza da inor hezibidean jartzea eskolatu gabe, baina eskolatu eta hezibidean jarri ez, madarikazioa da. Munstroak sortzea legez. Ez sentimendurik, ez gizarte bizitzarik, ez harremanik, ez munduaren gaineko iritzi zintzorik duen pertsona bat, oso eskolatu izanda ere, munstro txiki bat da.

1917, Lehen Mundu Gerra garaia. 1936, Espainiako Gerra Zibila. 1942, Bigarren Mundu Gerra. Gerra hotsak han eta hemen gaur egun ere...

Tira, tartean badira gertakari inportanteak. Primo de Riveraren diktadura, adibidez. Oso ume nintzen, hari buruzko iritzia izateko gauza ez, baina inguruko helduen kexak bai, iritsi zitzaizkidan, honetaz eta hartaz. Esaterako, Ortegari jarritako isuna: milioi erdi pezeta. Nonbait, artikulua idatzi zuen eta, amaieran, zera ipini: *Delenda est Monarchia*. Zuzenbide Etikoak eta Zibikoak, eta Zuzenbide Hastapenak ikasgaiko irakasleak orro batean jardun zuen, esanez isuna konstituzioaren kontrakoa zela, isun guztien neurria gainditzen zuela milioi erdi hark. Hori gogoa geratu zaidan gertakari inportantea izan zen. Beste gertakari bat, Bigarren Errepublikaren aldarrikapena. Errepublikak erakutsi zidan, amak kontatu zidan fedez gainera bazegoela besterik. Bizitza sozialean ere inportantziakorik bazegoela ikasi nuen orduan, hau da, askatasun, berdintasun eta anaitasun ideia. Garai batean ideia iraultzailea; gaur egun, gizakiaren balio inportanteenetako batzuk ditugu.

Errepublikaren balioak etsipenez gogoratzen dituzu?

Bai. Ez ditut harrezkero ikusi.

1995ean Eusko Ikaskuntzaren Manuel Lekuona saria jaso zenuen. Hainbat lagunek hitz egin zuen ekitaldi hartan. Zuk, gaztelaniaz lehenen-

go, eta euskaraz ondoren, egin zenuen hitzaldia. Amaieran, bakearen aldeko deia egin zenuen. Bakea posible da?

Bake absolutua... hilerriko bakea ez bada, ez. Bakea, gizakion gainerako balio guztiak bezala, ezinezkoa da ehuneko ehunean betetzea. Berdin askatasuna, berdintasuna eta beste. Gure lana da balio horien maila areagotzea. Munduan inork goserik izan ez dezan nahi badugu, eginahalean jardun eta, beharbada, %95ek goserik ez izatea lortuko dugu. Hala ere, goren mailara iristeko ahaleginak egin behar ditugu. Beti izango da maila bat lortuko ez duguna, mundu perfekturik ez dago-eta, mundu zoriontsurik ez. Lortuko ez dugun koska hori ez da txarra, lanean lotuko gaitu-eta, lanerako ilusioa izango dugu helburua lortzea. Mundua perfektu ikusten duenak, igual hartuko du fusila hura defendatzeko, eta, orduan, diktadura ezarriko du. Eta diktaduran inork ere ez daki zer dagoen.

Arestian esan dudanez, Manuel Lekuona sari-banaketa ekitaldi hartan, euskaraz jardun zenuen, maitasunez. Ez zenuen euskaraz umetan ikasi.

Zer edo zer badakit baina ezin dut ondo hitz egin [euskaraz esan du]. Hitzaldi labur hura egiteko ere idatzi egin behar izan nuen. Artean, Francoren garaian, Euskerazaleak elkarte sortu genuen Jesus Oleagak, Juan Ramon Urkixok eta beste batzuek. Gure aita euskaldun peto-petoa zen. Ama ez. Euskaraz ozta-ozta moldatzen zen, besterik ez. Amak euskaraz egiten zion, eta berak gaztelaniaz erantzuten. Gure aitak, berriz, euskara seme-alabei transmititu besterik ez, eta ez zuen egin. Eta ez zuen egin... Ez, ez noa gehiago esaten.

Tira, amak transmititzen duen hizkuntza da lehena...

Bai, baina badira beste gauza batzuk ere...

Polizi etxera

“Urtebete egin nuen Madrilén bizitzen, eta sufritzen. Behin, polizia etxera eroan ninduten. Jatetxean ginen, eta, ondoko mahaian nonbait, gipuzkoarrak euskaraz. Besteko mahaian zegoen batek, jaiki eta gaztelaniaz hitz egiteko esan zien: ‘Ez dakit ez ote zaretzen nitaz gaizki esaka ari’. Neu ere jaiki egin nintzen: ‘Zu alemanez ere ari zinen, eta ez dakit ez ote zaren nitaz gaizki esaka ari’. Eztabaidan hasi ginen, berotu ginen, eta, azkenean, denok polizia etxera. Tolerantzia landu behar dugu. Uste dut intolerante egiten ari garela. Ez dago ideal bat, euskaldun, europar, musulman, kristau... Ez dago ideal bat bera ere intolerante egin behar gaituenik. Eta, egiten bagaitu, ideal horrek ez du balio”.

Zer iruditzen zaizu behin horrela eman zizuten titulua?: “Adrian Zelaia, euskal zuzenbidearen patriarka”.

Pedanteria galanta. Zuzenbide pribatuaren aldizkariaren zuzendari Manuel Albadalejok esan zuen behin, zuzenbide zibileko liburu baten aurkezpenean. Esan bazuen, esan zuen. “Euskal zuzenbidearen patriarka”. Esaldi atsegina da, baina ezin da betiko utzi.

Egia da, ordea, gure zuzenbidea ikertzen hasi zinenean, ordu arte lan gutxi egin zegoela.

Euskara zegoen egoeran zegoen euskal zuzenbidea orduan. Oso baztertua. Inork ez zuen euskal zuzenbidea ikertua. Baina Aragoiko zuzenbidea ere ez zegoen ikertua... Behin, Zaragozara hitzaldi egitera joan eta horixe esan zidan Zuzenbide Zibileko irakasleak: “Aragoitarrok ez dugu beste nortasun ezaugarririk, gure zuzenbide zibila baino”. Eta ez zuten ikertzen.

Zertan da zuzenbidea gure gizartean?

Galdera filosofikoa da hori... Zertan da zuzenbidea gure gizartean? Zergatik naizen legelari galdetzea litzateke hori.

Zergatik zara legelari?

Halabeharrez. Madrilera joan nintzen Pedagogia ikastera, baina zarratu egin zuten fakultatea. Diktaduraren erabaki “jakintsuetako” bat. Pedagogia fakultatea zarratu eta esan zidaten albotik: “Zuzenbidea ikasi beharko zenuke, Bilbotik bertatik *libre* ikasi ahalko duzu-eta”. Eta Zuzenbidean matrikulatu nintzen... Zure galderara etorrita, ez dago araurik gabe goberna litekeen gizarterik, araurik oinarrizkoenak besterik ez bada ere. Antzina-ko gizarteek ere arauak zituzten, idatziak ez izan arren. Gero, Hamurabiren Kodea etorri zen... Gizartea zenbat eta konplikatuago, orduan eta arau idatzi gehiago ditu. Gizarte guztiak dute zuzenbidea. Gure lana da zuzenbide egokia izatea, hau da, justizia, berdinta-

Descenso de Cañones/Espeleología Arroila Jaitsierak/Espeleología
 Puenting/Éscalada/Raquetas de nieve Zubi saltoa/Eskalada/Elur erraketak
 Cursos técnicos/Viajes de aventura Ikastaro teknikoak/Aventura bidaiak
 y mucho mas... eta askoz gehiago...

www.inguruabentura.com
info@inguruabentura.com

INGURU ABENTURA

Tel: 635 748 948

sun... eta bakea. Uste dut giza balio guztien bilduma dela bakea. Idazketa ezagutzen dugunetik, idatziz agertu behar dute balio horiek. Frantziako Iraultzak, esaterako, horixe egin zuen, Europako gizarteak kristauen garaitik zekartzan balioak idatziz jarri: justizia, berdintasuna, askatasuna. Aldi berean, baztertu egin zituen haien kontrakoak zitezkeenak: ezberdintasuna, injustizia... Ez dago beste biderik denok zoriontsuago eta zuzenago izateko.

Lege-arauak estu aplikatzea justizia da?

Estu aplikatzea? “Estu” horrek ez du askorik laguntzen...

Ken dezagun: lege-arauak aplikatzea justizia da?

Bada erromatarren aforismo bat: *Summun ius, summa iniuria* [zuzenbide gorena, injustizia gorena]. Uste dut ondo esanda dagoela. Arauari estu lotuta bizitzea, hesola bat lakoa izatea... ez da zuzena izatea. Justizia, giza ekintza guztietan ageri den tonuari tamaina hartzea da. Arauak humanitatez aplikatu behar dira, jakinaren gainean gauza bat humanoa ezin dela perfektua izan, batzuetan imperfekzioak ere toleratu beharra dagoela.

“Demokrazia ez da justizia, nahitaez”, esan zidan ama batek.

Gehiegikeriak ez dira onak. Gehiengoak gobernatzea da demokrazia, baina gehiengoak gobernatzea ez da beti gobernurik onena. Gehiengoa guztiz ados egon liteke, eta oker egon! Eta askotan egon da oker. “Hau eta hura aldarrikatzen dugu...”. “Bai, aldarrikatuko duzue, baina oker zaudete!”. Gehiengoak, berez, ez du erregimen bat zuzena egiten. Gehiengoaren gobernu baina gehiago da demokrazia. Frantziako Iraultzak askatasunaren bidea urratu nahi zuen, berdintasunarena,

1917

“1917an Lehen Mundu Gerran ginen, baina ez daukat orduko oroitzapenik, jakina. 5, 6 urtekoak ditut lehenengo oroitzapenak. Auto bakar bat, Sestaon, zementu fabrikako nagusi Ellakuriarena. Gu, umeok, futbolearen kalearen erdian. Bat-batean, oihua: ‘Autoa!’. Baloia jaso eta autoari pasatzen uzten genion. Gaur ez da horrelakorik”.



AZKEN HITZA

Bizitza

“Niretzat bizitza labur dator, luzea izan delako. Hain luzea, ez dakit kontatzeko gauza izango nintzen. Autobiografia moduko bat idatzi nuen, eta halako bi, hiru edo lau ere idatzi nitzakeen... Bizitza laburra... nire kasuan, etorkizuna da laburra”.

justiziarena... Aldi berean, iraultza hark berak atera zuen gillotina. Demokraziak injustiziaren lorratzen jartzen bagaitu, porrot galanta demokrazia hori!

Zergatik zara horren kritiko gaur egungo politikariek?

Kritiko, ni?

Hala ageri da zenbait elkarreketatan, ez duzu haien tonua, oldarra, jarrera maite.

Pentsatzen hasiz gero, Franco aurreko eta osteko politikariak konparatu eta egiazaleagoak iruditzen zaizkit haiek, karguari ez hain lotuak. Ez dakit ez ote naizen injustua gaur egungo politikariek... Garai bateko politikariek, greziar zaharrek legez, ez zioten elkarri ukondoka erasoko, gorago nor iritsiko borrokan. Jende hark denon ongizatea nahi zuen, norberarenaren gainetik. Horretan nago ni. Gaur egun, jende asko dago politikari emana, baina handik etekin handia ateratzen duelako.

Espainia galga dugulakoan bizi da hainbat euskaldun. Euskal Herria Espainia baino “arinago” dabilela uste du haren karga pisua gabe, abiadura bat gehiago duela...

Abiadura bat gehiago, norantz?

Ongizateari buruz.

Euskal Herria beti izan da berezia, beti ezberdin. Abiadura bat gehiago izan dugu, hasteko, foruak izan ditugunetik. Abiadura horrek mundu modernoago bati begira jarri gintuen, bai XVI. mendean euskalduna Madrilera joaten zenean, bai Bilbo, Bermeo, Hondarribia, Pasaia eta besteko portuetatik itsasontziak Atlantikotik barrena Stockholmeraino, Brujas eta Ganteraino irtetzen zirenean. Pekoz peko hitz egiten eta negoziatzen zuen euskaldunak batarekin eta bestearekin... Beti ibili gara aurretik, nahiz eta orain zailago dugun nabarmentzea, euli asko dabilta-eta inguruan. Kar, kar, kar...

Euskaraz aditzen duzu?

Egizu euskaraz...

Zelan bizi zara, Adrian?

... [eta euskaraz lotu da, astiro] ■

argia.com Bere bizitzaz eta zuzenbideaz luzeago gure webgunean.